| 2017KO APIRILAREN 24AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 24 DE ABRIL DE 2017 |
|---|---|

Alvaro GONZALEZ PEREZ Jn.

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

AMIEVA CLEMENTE, Paula and.
ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn
ANDOLLO GONZALEZ, Susana.
ARRAIZA ARAMENDIA, Maite and.
ARREGI MARTINEZ, Joseba jn.
CORIA YANGUAS, Elena and.
COS YAÑEZ, Susana de and.
EIGUREN ALBERDI, Keltse and.
GUIJARRUBIA GARCIA, Nerea and.
IBABE BOTELLA, Miguel jn.
ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn.
LANDA ARTECHE, José Luis jn.
PRADA OLLETA, Enrique jn.
RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn.
SAINZ ROBLES, Santiago jn.
URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn.

| IDAZKARIA | SECRETARIO |
|---|---|

Juan Ig. ASTORKITZA MOTA jn.

| GONBIDATUTAKO ARDURADUNAK | RESPONSABLES INVITADAS/OS |
|---|---|

ALONSO BASALDUA, Ainhoa and.

Getxon, 2017ko apirilaren 24an, arratsaldeko 12:00etan, ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea Udaltzaingoko batzar-aretoan, goian aipatutako pertsonak batu direlarik.

En Getxo, a las 12:00 horas del día 24 de abril de 2017 se reúne en sesión ordinaria, en la Sala de Reuniones de la Policía Municipal, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

Hasi baino lehen, Lehendakariak jakinarazi du aurreko bileraren akta Zuzendaritza Batzordearen maiatzeko bileran ekarriko dutela; izan ere, berrikuntza bat egiten ahalegindu dira, eta metodoa transkripzio literala izan da, hots, literalegia eta ez da ondo atera. Beraz, metodo klasikoarekin egingo dute.

Antes de comenzar, el Presidente informa que el acta de la sesión anterior se traerá en el próximo consejo rector de mayo, dado que se ha intentado una innovación y el método ha resultado una transcripción literal, que es demasiado literal y no ha salido bien, por lo que se realizará por el método clásico.

83.- 87/2017 ZK. LEHENDAKARITZA-EBAZPENAREN KONTU EMATEA; HORREN BIDEZ, 55.451,12 €-KO KREDITUA EGOKITZEA ONARTU DA

83.- DACION DE CUENTA DE LA RESOLUCION DE PRESIDENCIA Nº 87/2017, POR LA QUE SE APRUEBA UNA HABILITACION DE CREDITO DE 55.451,12 €

Lehendakariak esan du 87/2017 ebazpena *Wave on Wave* proiektuaren ingurukoa dela, Erasmus + Sport bidezkoa. Dirua Pesaroko Udalak transferitu zuen proiektuaren lehen faserako. Baliteke datorren urtean beste zenbateko bat izatea, honen erdia gutxi gorabehera. Gainera, badirudi Poloniako talde batek arazoak dituela alde ekonomikoa kudeatzeko, eta alde ekonomikoari aurre egitea eta Vinilia hiriari dagokion jardueren zatia ere guri proposatuko digute. Bertaratutakoei galdetu die galderaren bat baduten, eta inork ez du ezer galdetu.

El Presidente da cuenta que la resolución nº 87/2017 se refiere al proyecto *Wave on Wave*, que estamos haciendo de Erasmus + Sport, que es un dinero transferido del Ayuntamiento de Pésaro para la primera fase del proyecto. Es posible que el año que viene haya otra cantidad, la mitad que ésta aproximadamente y parece que un grupo de Polonia está teniendo problemas para gestionar la parte económica y nos van a proponer también afrontar la parte económica y la parte de actividades

correspondiente a la ciudad de Vinilia, y preguntando a los asistentes si tienen alguna pregunta qué hacer no formulan ninguna.

84.- 2016KO URTEKO KONTUAK EMATEA ETA UDALEAN AURKEZTEA

Lehendakariak esan du puntu hau bozkatu egin beharra dagoela, eta, horren inguruan inork galderarik egin ez duenez, emaitza ondorengoa izan da:

| | |
|---|---|
| Aldekoak................ | 7 (EAJ/PNV - PSE EE) |
| Abstentzioak .......... | 10 (PP) - EH BILDU-CIUDADANOS-GUK) |

84.- RENDICION DE LA CUENTA ANUAL 2016 Y ELEVACION AL AYUNTAMIENTO

El Presidente informa que este punto hay que someterlo a votación y dado que no existe ninguna pregunta al respecto, el resultado es el siguiente

| | |
|---|---|
| A favor .................... | 7 (EAJ/PNV - PSE EE) |
| Abstenciones .......... | 10 (PP) - EH BILDU-CIUDADANOS- GUK) |

INFORMAZIO OROKORRA

1.- KALITATEKO HIRUHILEKO LABURPENA

Lehendakariak dossierra banatu dio alderdi politiko bakoitzari.

2.- GARAGARDOTEGIAN PARTE HARTZEKO PROIEKTUA

Lehendakariak jakinarazi du garagardotegian parte hartzeko proiektua abian dela. Lehen bilerak egin dituzte, eta, haren ustez, 29 elkarte aurkeztu dira (deitutako 40 edo 41etatik) parte hartzeko proiektuaren lehen fasean; hots, diagnostikoa egitea eta garagardotegiaren etorkizuneko erabilerak aztertzea.

3.- PARKEAN PARTE HARTZEKO PROIEKTUA
Parkeari dagokionean, baita ere diagnostikoa lantzen ari dira; hau da, parkearen inguruan egindako etorkizuneko proposamenetan eragina izan dezaketen hirigintza-gaiei buruzko informazio guztia biltzen ari dira, aurreko Zuzendaritza Batzordean aurreratu moduan.

4.- ERASMUS + SPORT
Proiektu honen gainean Lehendakariak adierazi du aste honetan hasiko direla proiektuan parte hartuko duten uretako kirol-taldeekin bilerak egiten, eta, dokumentazioa sortzen doan heinean, banatuko diela.

5.- JUAN IG. ASTORKIZAREN ERRETIRATZEA
Bestalde, adierazi du gaur dela Juan Ignacio Astorkizaren azken Zuzendaritza Batzordea, apirilaren 30ean erretiratuko delako. Udaleko langileekin batera aztertzen ari dira kudeatzailetza ordezkatzeko jarraitu beharreko prozesua, eta ordezkaritza hori egin bitartean, ordezkari kudeatzailea Ainhoa Alonso Basaldua izango da. Dena den, izendapena uda aurretik egitea espero dute.

Bi ordezkari kudeatzaile daude: Ainhoa Alonso Basaldua eta Aitor Miñambres Amezaga. Horiek dira horretarako gaitutako pertsonak.

Prada jaunak zorionak eman dizkio Juan Ig. Astorkizari erretiratu egiten delako.

GALDE-ESKEAK

Lehendakariak adierazi du EH Bilduren galdera bat jaso

INFORMACION GENERAL

1.- RESUMEN TRIMESTRAL CALIDAD

El Presidente reparte dossier a cada uno de los partidos políticos.

2.- PROYECTO PARTICIPACION CERVECERA

El Presidente informa que ha comenzado el proyecto de participación de la cervecera, se han celebrado las primeras sesiones y cree recordar que se han presentado 29 asociaciones (de las 40 o 41 convocadas) en la primera fase del proyecto de participación, que era trabajar en el diagnóstico y futuras utilizaciones de la cervecera.

3.- PROYECTO PARTICIPACION PARQUE
En cuanto al Parque, comenta que también se está trabajando en el diagnóstico, consistente en recopilar toda la información existente sobre cuestiones urbanísticas que puedan afectar a las futuras propuestas que se hagan sobre dicho parque, tal y como adelantó en el anterior consejo rector.

4.- ERASMUS + SPORT
Sobre este proyecto el Presidente informa que esta semana comenzarán las reuniones con los grupos deportivos de agua que van a participar en el proyecto y en la medida que vaya surgiendo documentación les irá facilitando.

5.- JUBILACION DE JUAN IG. ASTORKIZA
Por otra parte informa, que hoy es el último Consejo Rector de Juan Ignacio Astorkiza, que se jubila el próximo día 30 de abril, y se está estudiando junto con personal del ayuntamiento el proceso a seguir para la sustitución de la gerencia, y que en tanto en cuanto se realice esa sustitución, la sustituta gerenta va a ser Ainhoa Alonso Basaldua; no obstante, se espera cerrar el nombramiento antes de verano.

Que existen dos gerentes sustitutos que son Ainhoa Alonso Basaldua y Aitor Miñambres Amézaga en su caso, que son las personas que están habilitadas para poder hacerlo.

El Sr. Prada felicita a Juan Ig. Astorkitza por su jubilación.

RUEGOS Y PREGUNTAS

El Presidente participa que ha llegado una pregunta

dutela, eta hitzez hitz ondorengoa esaten duela:

*"Jakin nahi genuke publizitatean, komunikabide ezberdinetan, zer-nolako inbertsioak egiten diren, Getxo Kirolaken antolatzen diren jarduerak iragartzeko. Datu orokor horrez gain, partida hori nola zehazten den jakin nahi genuke; hau da, zein komunikabidetan eta espezifikoki zenbatekoa den publizitate-partida. Informazioa idatziz helaraztea eskertuko genizueke. Eskerrik asko. Nerea (ordezko bozeramailea)".*

Hori ikusita, Lehendakariak erantzun du iaz 12.000,00 euro gastatu zituztela. Kirol Harrobiarekin bi argitalpen egiten dira; alegia, Getxo Kirolaken iragarkia/kartela argitaratzen da Futbol Eskolaren aurkezpena egiten denean, Getxo Marka bera (Getxo FK, Neguri FK, Iturgitxi FK, Bizkerre FK eta Galea FK) nahiz Romo/Areeta FK-rena, hots, Eskolaren aurkezpena egiten dutenean, Getxo Kirolakekin beheko iragarkia sartzen dugu.

Halaber, aurreko urteetan "El Correo Español-El Pueblo Vasco" egunkarian argitaratu dira klubek eta udalerriko kirol-elkarteek maiatzean, ekainean, uztailean, irailean, urrian eta azaroan egiten dituzten jarduerak, baina aurten oraindik ez da erabaki zer egin horren inguruan.

Aurtengo urterako 10.000 €-ko partida aurreikusi da; izan ere, Radio Vinilorekin akordio bat lantzen ari dira, udalerrian garrantzitsuenak diren kirol-diziplinei eskainitako programa bat egiten baitu gauez. Beraz, laster, edukien inguruko akordio hori ixtea espero da.

Arraiza andreak erantzun hori idatziz eskatu du, eta Lehendakariak horrela egingo dutela erantzun dio.

Beste gairik gabe, saioari amaiera eman zaio akta honetako goiburuan aipaturiko eguneko 12:20etan.

Lehendakaria / El Presidente

por escrito de EH Bildu, que textualmente, dice:

*"Nos gustaría conocer qué tipo de inversiones se hacen en publicidad, en diferentes medios de comunicación para publicitar las actividades que se organizan en Getxo Kirolak. Además de este dato de carácter general, nos gustaría saber cómo se detalla esa partida, es decir, en qué medios y de cuánto es específicamente esa partida de publicidad. Os agradeceríamos que nos hicierais llegar esa información por escrito. Muchas gracias. Nerea (Portavoz sustituta)".*

En vista de ello, el Presidente responde que el pasado año se gastaron 12.000,00 euros. Que hay dos publicaciones con Cantera Deportiva que consisten en publicar anuncio/cartel de Getxo Kirolak, cuando realiza la presentación la Escuela de Fútbol, tanto la Marca Getxo (que comprende al Getxo F.C., Neguri F.C., Iturgitxi F.C., Bizkerre F.C. y Galea F.C.), como cuando la presenta el Romo/Arenas F.C., es decir, cuando hacen la presentación de su Escuela, metemos un faldón con Getxo Kirolak.

Asimismo, en años anteriores se ha realizado la publicación con "El Correo Español-El Pueblo Vasco" un faldón con los eventos que realizan los clubes y asociaciones deportivas del municipio que se celebran en mayo, junio, julio, septiembre, octubre y noviembre, aunque este año no se ha decidido todavía que hacer al respecto.

Que para el año actual se tiene prevista una partida de 10.000 €, ya que se está trabajando un acuerdo con Radio Vinilo que tiene un programa por las noches dedicado a una disciplina deportiva de las que son más importantes dentro del municipio y, se está a la espera de cerrar en breve ese acuerdo sobre contenidos.

La Sra. Arraiza solicita esta respuesta por escrito, a lo cual el presidente le contesta que así se hará.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 12:20 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Idazkaria / El Secretario